

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, HAUTESKUNDE KONTABILITATEEN IRIZPENARI BURUZKOA (2016-KO IRAILAREN 25-EKO EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK)

Joan den otsailaren 9an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez Hauteskunde Kontabilitateei buruzko Irizpena onartu zuen, 2016ko irailaren 25eko Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzkoa.

Lanaren mamia hauteskundeetan aulkia eskuratu zuten edota hauteskundeetako diru-laguntzaren aurrerakina eskatu zuten alderdi politikoen hauteskunde-kontuak egiaztatzea izan da, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeek ekainaren 15eko 5/1990 Legea betez.

Hona hemen HKEEK eskuratu dituen ondorioak:

- Alderdi politikoen kontabilitatearen fiskalizazioa Kontuen Epaitegiari dagokionez gero (estatukoari), HKEEK ez du aurkeztutako kontabilitatean erregistratu gabeko hauteskunde gasturik ba ote den egiaztatu, ez eta alderdi politikoen kontabilitatearen bitartez legezko debeku edo mugaketak betetzen ez dituzten diru-sarrerak bideratu ote diren ere.
- Bi alderdi politikok hauteskunde gastuen ordainketak hauteskundekoa ez den kontu batetik egin dituzte. Berebat, Eusko Jaurlaritzak bigarren aurrerakinaren ordainketa atzerapenez egin du.
- Irizpenak, gainera, alderdi politiko bakoitzak zorpetutako eta ordaintzeko dituen diru-laguntzak jasotzen ditu, justifikatu dituzten gastuen eta ezargarria den legeriak finkatutako mugen arabera.